



BERGARAN HUTSIK DAUDEN ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO LAGUNTZEN PROGRAMA (*BERGARAN ALOKAIRU SOZIALA BULTZATZEKO LAGUNTZEN PROGRAMA*) ARAUTUKO DUEN ORDENANTZA

OHARRA: Dokumentu hau informazioa emateko helburuarekin eginda dago. Aldizkari ofizialetan argitaratutako testu onartuek bakarrik dute balio legala

Onartuta: Udalbatzak 2014/11/24an

Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2014/12/16an

BERGARAN HUTSIK DAUDEN ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO LAGUNTZEN PROGRAMA (BERGARAN ALOKAIRU SOZIALA BULTZATZEKO LAGUNTZEN PROGRAMA) ARAUTUKO DUEN ORDENANTZA

Aurrekariak

Bergarako Udalak udalerrian hutsik dauden etxebizitzak alokairu soziala bultzatu nahi du programa honen bitartez. Horretarako Eusko Jaurlaritzako Bizigune eta Asap programak osatu nahi ditu; izan ere, normalean etxebizitzak ez alokatzeko ondorengo arrazoi hauetako bat edo gehiago ematen dira:

- Etxebizitza horiek alokatzeko borondatea izan bai, baina etxebizitza horiek gutxieneko baldintza batzuk bete ahal izateko obrak egin beharra eta gastu horri aurre egiteko zailtasunak.
- Etxe jabearen beldurra kontratua amaitzean zein egoeratan itzuliko ote zaion etxebizitza, errenta kobratuko ote duen, ..., nahiz eta jadanik Eusko Jaurlaritzak martxan dituen programekin beldur hori desagertuta edo behintzat asko mugatuta egon beharko lukeen.

Gainera indarrean dagoen legedia etxebizitza alokatzeko beste betebeharrak batzuk ezarri ditu, kostu bat dutenak, hala nola adibidez apirilaren 5eko 235/2013 Errege Dekretuaren 2. artikulua dioenari jarraituz, etxebizitzak alokatu ahal izateko Efizientzia Energetikoaren Ziurtagiria behar izatea.

Beraz, Bergarako Udalak Programa honekin zehazki honako helburuak lortu nahi ditu:

- Oinarrizkoa den etxebizitza eskubidea bermatzen lagundu.
- Hutsik dauden etxebizitzak alokairu soziala bultzatu.
- Etxebizitzak eraberritzea bultzatu eta herriko ekonomia suspertu.

Horretarako hainbat diru-laguntza eman nahi die hutsik dauden etxebizitzak jabeek, jabe horiek etxebizitzak alokatzen jarri ahal ditzaten; hala nola obrak egiteko, Efizientzia Energetikoaren Ziurtagiria lortzeko gastuei aurre egiteko, edo/eta alokairu hartzaileak egindako kalte edota ez-betetzeak estaltzen dituen ohiko etxe aseguruari gehitzeko prima osagarriak kontratatzeke diru-laguntzak.

Beste diru-laguntza bat ere emango du, baina bonoetan, herriko komertzioetan erosketak egiteko. Laguntza hori izango da etxebizitzak alokatu ahal izateko gutxieneko baldintzak betetzeko obrak egin beharra badu eta egiten baditu, hirigintza baimen emakida zerbitzuaren gaineko tasan eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan ordaindutakoaren zati baten parekoa (equivalente). Horrela lortu nahi da baita herriko komertzioari laguntzea.

Programa honek honako izen hau edukiko du: *Bergaran alokairu soziala bultzatzeko laguntzen programa* eta ordenantza honen bitartez arautuko da.

BERGARAN HUTSIK DAUDEN ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO LAGUNTZEN PROGRAMA (BERGARAN ALOKAIRU SOZIALA BULTZATZEKO LAGUNTZEN PROGRAMA) ARAUTUKO DUEN ORDENANTZA

1. artikulua

Bergaran alokairu soziala bultzatzeko programa arautzea da ordenantza honen helburua.

2. artikulua

Programa honen barruan laguntzak emateko Bergarako Udalak urtero kopuru jakin bat ezarriko du udal aurrekontuan programa indarrean dagoen bitartean.

Eskabideak aurkezteko hurrenkerari erreparatuta emango dira laguntzak, aurrekontuan aurreikusitako dirua bukatu arte. Eskaera aurkeztutzat ulertuko da eskaera eta berarekin aurkeztu beharreko dokumentazio guztia aurkezten denean.

Eskaerak diru-laguntzak jasotzeko baldintzak betetzen baditu, baina jadanik urte horretarako aurrekontua agortuta badago, hurrengo urteko aurrekontuan aurreikusitako kopurutik finantziazioa lortzeko lehentasuna izango dute eskaeraren hurrenkera errespetatuta.

3. artikulua

Laguntza programa honetan parte hartzeko honako baldintza hauek bete beharko dira:

- Alokatu nahi den etxebizitza Bergaran egotea.
- Bergarako udalarekin dituen betebeharretan etxebizitzaren jabea egunean egotea.
- Etxebizitza Bizigune, Asap edo udal programan sartzea, eta eranskin bakoitzean arautzen diren laguntzak lortzeko baldintzak betetzea, baita alokairuak ere. Dena den, ezin izango da programa baten baino gehiagotan sartuta egon.

Bizigune edota Asap-en sartzen diren etxebizitzek eta haien jabeek une bakoitzean indarrean dagoen araudiak ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

Udal programan sartzeko baldintzak berriz hurrengo artikuluan arautzen dira.

4. artikulua

4.1.- Udal programan sartzeko honako baldintza hauek bete beharko dira:

- Ezin izango da etxebizitza Eusko Jaurlaritzako Bizigune edo Asap programetan sartuta egon.
- Etxebizitza hutsik egon beharko du.

- Kobratu daitekeen gehienezko errenta izango da Bergarako Udalak (Suradesaren bitartez) zehaztutakoa, eta gehienez ere 400 eurokoa/hileko, zergak kanpo, lehen urtean.

Udalak zehaztuko duen gehienezko errenta horretan ez dira sartuko etxebizitzaren ura, gasa, argindarra, kalefakzioa, eta abarren kontsumoetatik eratorritako gastuak. Gastu hauek maizterraren kontura izango dira. Jabearen kontura izango dira ordea, jabekide bezala ordaindu beharrekoak.

- Egiten den alokairu-kontratua gutxienez urte batekoa izango da. Luzatuko balitz, errenta hurrengo urteetan urtero eguneratu ahal izango da aurreko urteko Estatuko KPlaren arabera.

- Behin sartutakoan gutxienez 3 urtez programaren barruan mantendu beharko da etxebizitza. Eta hutsik dagoenean udaleko web orrian prestatu den atalean alokagai azalduko da.

4.2.- Udal programan sartzeko honako prozedura hau jarraituko da:

1- Interesa duen etxebizitzaren jabeak eskaera aurkeztuko du Bergarako Udalean horretarako prestatutako inprimakian. Ez da beste dokumentazio motarik onartuko.

2- Ondoren Suradesako teknikariek etxebizitza hori ikuskatu, eta jarraian txosten bat emango dute gutxienez honako puntu hauek jasoz:

- Etxebizitzak bizigarritasun baldintzak betetzen dituen edo ez, eta betetzen ez baditu zein neurri hartu beharko lituzkeen jabeak.
- Bizigarritasun baldintzak betetzen baditu, jaso dezakeen gehienezko errenta.
- Programa honen kontura etxebizitzaren jabeak lortu ditzakeen laguntzak.

3- Programan sartzeko eskaera

3-a) Informazio guzti hori eskuratuta, jabeak etxebizitza udal programan sartzeko interesa balu eta etxebizitzak bizigarritasun baldintzak betetzen baditu, eskaera egingo du Bergarako Udalean horretarako prestatutako inprimakia erabiliz (ez da beste dokumentazio motarik onartuko). Eskaera hori jabe guztiak sinatuta aurkeztuko da, Erregistroko ohar soilarekin eta efizientzia energetikoaren ziurtagiriarekin batera. Ez da beste dokumentazio motarik onartuko.

Hori aurkeztean Bergarako Udalak klabe bat emango dio jabeari etxebizitza Udaleko web-orrian agertzeko aplikazioan sartzeko; gainera, behar izanez gero, aplikazioan datuak sartzeko laguntza emango zaio.

Klabe horren erabilera zuzenaren erantzule jabea bera izango da, eta ez Udalak ezta Suradesak ere ez dute inolako erantzukizunik izango.

Hirugarren puntu honetan aipatzen den eskaera aurkezteak berarekin dakar udal programan gutxienez hiru urtez parte hartzeko konpromisoa.

Klabea ematen zaion momentutik kontatzen hasita, gehienez ere 7 egun naturaleko epean etxebizitza programan sartu beharko du.

3-b) Informazio guzti hori eskuratuta, jabeak etxebizitza udal programan sartzeko interesa balu, baina etxebizitzak bizigarritasun baldintzak betetzen ez baditu, horretarako prestatutako inprimakian adieraziko du bizigarritasun baldintzak etxebizitzak betetzen dituztenean, udal programan sartzeko konpromisoa hartzen duela. Ondoren, obrak egiteko baimena eskatuko du, eta udalak baimena ematean zehaztutako epean obrak burutu beharko ditu.

Obrak amaitutakoan etxe jabeak Bergarako Udalari jakinaraziko dio obrak amaitu dituela, eta hark Suradesaren bitartez ikuskatu ondoren baldintzak betetzen dituela ikusiz gero, 3-a) puntuan jasotakoa burutuko da.

4.- Nahi izanez gero, une horretan oinarritzko alokairu-kontratuaren eredia emango dio Suradesak. Aldaketa/osaketa proposamenak etxebizitzaren jabeak berak deritzon aholkulariarekin eta maizterrearekin adostu beharko ditu.

5.- Udalak ez du inolako erantzukizunik hartzen jabearen eta maizterrearen artean sortu daitezkeen desadostasunetan.

5. artikulua

Araudi honek arautzen duen programa honen barruan honako laguntzak emango dira:

- Hainbat arrisku aseguratzekeo gastuei aurre egiteko diru-laguntza, alokairu-kontratua indarrean dagoen bitartean.
- Efizientzia Energetikoaren Ziurtagiria lortzeko gastuei aurre egiteko diru-laguntza.
- Etxebizitzak eraberritzeko diru-laguntza, zehazki interesik gabe itzuli beharreko aurrerakinak (Bizigunen parte hartzen duten etxejabeentzat soilik).
- Etxebizitzak eraberritzen badira, obrak egiteko ordaindutako tasa eta zergaren zati baten pareko diru-laguntza bonoetan.

Diru-laguntza horiek dituzten berezitasunak eranskinetan arautzen dira.

6. artikulua

Aurkeztutako diru-laguntzen eskaerak 3 hilabeteko epean ebatziko dira.

Azaroaren 26ko 30/1992 Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 44. artikulua arabera, aurreko pasartean aipatutako epe hori igarota ebazpena jakinarazi gabe eskatzaileari, eskaera ez dela onartu ulertu ahal izango da.

Aurreko urtean emandako edo ezeztatutako diru-laguntzen berri emango da udal iragarki-taulan, kontuan izanda azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 18. artikulua eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 30. artikulua diotena.

7. artikulua

Programa honetan aurreikusitako diru-laguntzak bateragarriak dira beraien artean, ez baldin bada ordenantza honetan espresuki kontrakoa adierazten, eta baita etxebizitzaren alokairua sustatzeko beste administrazio batzuek eman ditzaketen diru-laguntza edota maileguekin ere.

Hala ere, diru-laguntza ezin izango da izan –beste diru-laguntza batzuekin batera zein bera bakarrik– lagundutako jardueraren kostua gainditzeko bestekoa.

8. artikulua.-

Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzen aldaketek, eta, edozein kasutan, beste entitate publiko edo pribatu batzuetatik konkurrentzian jasotako laguntzek, emakidaren erabakia aldatzea ekar dezakete.

9. artikulua.-

Diru-laguntza berrikusteko eta, hala egokituz gero, ezeztatu eta jasotako diru-laguntza itzultzeko arrazoi izango dira:

- a) Diru-laguntza beharrezko baldintzak bete gabe jaso izana.
- b) Diru-laguntzaren helburua, osorik edo zati batean, ez betetzea.
- c) Diru-laguntzari eman zaion erabilera zuritzeko derrigortasuna ez betetzea edo behar den bezala ez betetzea.
- d) Finantzen kontrol- eta frogatze-jarduerak oztopatzea, ezetza ematea, desenkusatzeko edo erresistentzia jartzea; agiriak kontserbatzeko eta kontabilitate eta erregistratze aldetik dituzten betebeharrak ez betetzea; horien ondorioz emandako diru-laguntza zertan erabili den ziurtatzea oztopatzen bada, helburua betetzen ez bada edo helburu berarentzako bestelako diru-laguntza, diru-sarrera edo baliabideak baldin badaude.
- e) Ordenantza honetan diru-laguntzaren onuradunei ezarritako betebeharrak ez betetzea.

Itzuli beharreko diru-kopuruak eskubide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira.

Lehen xedapen gehigarria.

Ordenantza honek indarrean jarraituko du aldatu edo indargabetu arte.

Bigarren xedapen gehigarria

Ordenantza honen interpretazioan sor daitezkeen zalantzak Alkateak erabakiko ditu eta baita Ordenantza hau aplikatzeko eta garatzeko behar besteko arauak eman ere.

Hirugarren xedapen gehigarria

Ordenantza honetan espresuki zehaztuta ez dagoenean, une bakoitzean indarrean dagoen diru-laguntzei buruzko legedia aplikatuko da; une honetan azaroaren 17ko 38/2003 Legea eta berau garatzen duten gainontzeko araudiak.

Azken xedapena

Ordenantza hau indarrean sartuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeitau egunetara.

I. ERANSKINA: Hainbat arrisku aseguratzeo gastuei aurre egiteko diru-laguntza

1.- Diru-laguntza hau eskuratu ahal izango dute udal programan sartu eta etxebizitza alokatzen duten etxebizitzaren jabeek. Alokairu-kontratua gutxienez urte batekoa izan beharko da eta hiru urtera arte luzagarria maizterrak nahi badu.

2.- Diru-laguntza hau eskuratzeko etxebizitzaren jabeak kontratatuko duen aseguru-polizak gutxienez maizterraren erantzukizun zibila estali beharko du. Horrez gain, jabeak nahi izanez gero, honako arriskuak estaltzeko aseguruia kontratatu ahal izango du:

- Jabearen defentsa juridikoa
- Maizterrak errentak ez ordaintzea.
- Maizterrak burututako ekintza bandalikoak

3.- Udalak emango duen diru-laguntza soilik izango da arrisku-poliza horiek kontratatzeo gastuei aurre egiteko. Lortu daitekeen gehienezko diru-laguntza aurreko puntuan aipatutako lau arriskuak estaltzeko ordaindutako urteko primaren % 50a izango da –zergak barne– eta gehienez ere 150 euro/urteko.

4.- Laguntza hau eskuratzeko, jabeak derrigorrez horretarako prestatutako inprimakian eskaera aurkeztu beharko du Bergarako Udalean, honako dokumentazio honekin batera:

- Polizaren eta errezioboaren kopiak, arrisku bakoitza aseguratzearen kostua zehaztuta.
- Alokairu-kontratuaren kopia

Aurreko urtean ordaindutakoagatik dagokion diru-laguntza jasotzeko, idatzi hori dokumentazio guztiarekin aurkeztu beharko du urte bakoitzaren urtarrilaren 1etik otsailaren bukaerara bitartean. Epe horren barruan aurkeztu ezean urte horri dagokion diru-laguntza galduko du.

5.- Suradesak, konprobaketak egin ondoren, txosten teknikoa egingo du, eta txosten horretan oinarrituta dagokion diru-laguntza ordaintzeko proposamena egingo du Lurralde Antolamendu eta Ingurumeneko batzordeak, gero alkateak edo horrek delegatutako organoak erabaki dezan.

II. ERANSKINA: Efizientzia Energetikoaren Ziurtagiria lortzeko gastuei aurre egiteko diru-laguntza

1- Diru-laguntza hau eskuratu ahal izango du Bizigune, Asap edo udal programan etxebizitza sartzen duen etxebizitzaren jabeak, eta efizientzia energetikoaren ziurtagiria lortzeko gastuei aurre egiteko izango da. Udal programan sartutakoetan, alokairu-kontratua gutxienez urte batekoa izan beharko da eta hiru urtera arte luzagarria maizterrak nahi badu.

2- Aurreko puntuan aipatutako programa horietakoren batean sartzeko, alokatu nahi den etxebizitzan obrak egin beharra balego, obra horiek egin ondorengo efizientzia energetikoaren ziurtagiria lortzeko egindako gastuei aurre egiteko emango da bakarrik diru-laguntza.

3- Lortu daitekeen gehieneko diru-laguntza izango da ziurtagiria lortzearen kostuaren % 75a – BEZ barne–, eta gehienez ere 200 eurokoa.

4.- Efizientzia energetikoaren ziurtagiriak 10 urteko balioa duenez etxebizitza horren gaineko ziurtagiri berri bat ez da diruz lagunduko epe hori igaro arte, nahiz eta jabea aldatu. 10 urteko epe hori pasatu ondoren ziurtagiri berri bat egiteko diru-laguntza eskatu ahal izango du une horretan etxebizitzaren jabea denak, une horretan indarrean dauden baldintzak betetzen badira.

5.- Diru-laguntza hau eskuratzeko jabeak derrigorrez horretarako prestatutako inprimakian eskaera aurkeztu beharko du Bergarako Udalean, honako dokumentazio honekin:

- Lehenengo puntuan aipatutako programaren batean etxebizitza sartuta dagoela egiaztatzen duen agiria

- Efizientzia energetikoaren ziurtagiriaren eta fakturaren kopiak.

Horiek ikusita, Suradesak txosten teknikoa egingo du, eta txosten horretan oinarrituta dagokion diru-laguntza ordaintzeko proposamena egingo du Lurralde Antolamendu eta Ingurumeneko batzordeak, gero alkateak edo horrek delegatutako organoak erabaki dezan.

III. ERANSKINA: Etxebizitzak eraberritzeko diru-laguntza, zehazki interesik gabe itzuli beharreko aurrerakinak

1- Diru-laguntza hau eskuratu ahal izango du Bizigune programan etxebizitza sartzeko duen etxebizitzaren jabeak, baldin eta programa horretan sartzeko Alokabideko teknikariek finkatutako obrak egiten baditu, eta ordenantza honetan zehaztutakoa bete.

Diru-laguntza soilik izango da aurreko pasartean aipatutako txostenean aurreikusitako obrak egiteko. Ez da beste obrarik diruz lagunduko.

Diru-laguntza izango da interesik gabe itzuli beharreko aurrerakin bat.

2- Etxebizitzaren jabeak lortu dezakeen gehienezko diru-laguntza izango da 10.000 eurokoa, baina etxejabearen familia-unitatearen azken urteko sarrera haztatuak (haztatutako diru-sarreraren kalkulua Eusko Jaurlaritzak Ondare Urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jardun babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuaren –edo honen ordezkorekin- arabera egingo da). 21.100 euro baino baxuagoak diren kasuetan, alegia, laguntza hau **15.000** eurotara igo daiteke.

Dena den, etxebizitzaren jabeak bat baino gehiago badira edo jabeak bere egoera ekonomikoari buruzko informaziorik ez badu eman nahi, lortu daitekeen gehienezko laguntza 10.000 eurokoa izango da.

Jabeak Alokabidekin usufuktu-kontratua sinatzen duenean, errenta Bergarako Udalari ordaintzeko agindua emango dio Alokabideri, udalak emandako aurrerakina itzuli arte.

Aurrerakina jasotzen badu, ordaindu aurretik etxebizitzaren jabeak konpromisoa hartuko du aurrerakinak goian jasotako eran itzultzeko, edo, edozein arrazoiengatik horrela posible ez balitz, beste era batera itzultzeko, eta gehienez ere Udalaren eta jabearen artean sinatuko den kontratuan jasotako epean. Kontratu hori sinatzeak berarekin dakar Alokabiderekin sinatuko lukeen usufuktu-kontratuan aurreikusitako aukera –sei hilabeteko epean etxea alokatzen ez bada usufuktu-kontratua bertan behera uztearena- jabeak ezin erabili ahal izatea, aurrez ez baldin badu Udalaren adostasuna lortzen.

3- Aurrerakin hori eskatzeko jabeak derrigorrez horretarako prestatutako inprimakia erabiliz, eskaera aurkeztu beharko du Bergarako Udalean honako dokumentazio honekin batera:

- Erregistroko ohar soila.
- Alokabideren informe periziala, non zehaztuko diren gutxienez egin beharreko obrak eta, obra horiek eginda, zein izango litzatekeen, alokatzen bada, jasoko den gehienezko errenta.
- Etxebizitza Bizigune programan sartzeko konpromisoa azaltzen duen dokumentua.
- Egoera ekonomikoari buruzko informazioa (soilik 10.000 eurotik gorako laguntza nahiko balu)
- Aurrekontuak, prezio unitario eta globalekin.

Horiek jasotakoan, Suradesak txosten teknikoa egingo du eta bertan gutxienez honako hauek zehaztuko ditu:

- Aurrerakina zein obretarako emango zaion, egin beharreko obrentzako erreferentziazko prezio batzuk (Suradesak unitate ezberdinentzat prezio unitarioak definituko ditu) eta horien bitartez obren prezio totalaren kalkulua, eta hori kontuan izanda jabeak eskuratu dezakeen gehienezko aurrerakina

Txosten horretan oinarrituta dagokion diru-laguntza ordaintzeko proposamena egingo du Lurralde Antolamendu eta Ingurumeneko batzordeak, gero alkateak edo hark delegatutako organoak erabaki dezan. Alkateak onartu ondoren, eskatzaileari jakinaraziko zaio. Une horretan dirua erreserbatu egingo da.

Jakinarazpen horretan, halaber, adieraziko zaio obra-baimena eskatu behar duela hiru hilabeteko epean eta, Udalak obra-baimena eman ondoren, obra-baimenean zehaztutako epean burutu beharko dituela.

Epe horietakoren bat errespetatuko ez balitz, bere alde egindako aurrerakin-erreserba galdu egingo du etxebizitzaren jabeak, aparteko tramiterik gabe.

Obrak burutakoan Alokabideri eta udalari jakinaraziko dio obrak burutu dituela. Alokabidek etxebizitza ikuskatu ondoren, informe perizial berri bat prestatuko du eta, eskatutako obrak egin baditu jabeak, usufuktu-lagapeneko kontratua sinatuko dute Alokabideren eta jabearen artean.

Jarraian, jabeak Bergarako Udalean eskatuko du onartutako aurrerakina ordaintzea. Horretarako, udalak prestatutako inprimakian egingo du jabeak eskaera, eta horrekin batera honako hauek aurkeztuko ditu:

- Alokabideren informe perizialaren kopia
- Alokabiderekin sinatutako usufuktu-kontratua
- Obren fakturen kopia

Suradesak, dokumentazio hori aztertu ondoren, eta beharrezkoa baderitzo obrak ikuskatuta, txosten teknikoa egingo du, eta bertan zehaztuko du zenbatekoa den gehienez ordaindu beharreko aurrerakina. Txosten horretan oinarrituta, dagokion diru-laguntza ordaintzeko proposamena egingo du Lurralde Antolamendu eta Ingurumeneko batzordeak, gero alkateak edo hark delegatutako organoak erabaki dezan, eta alkateak onartu ondoren eskatzaileari jakinaraziko zaio.

Erabaki hori jakinarazi eta gehienez ere hilabete bateko epean kreditu-lagapeneko kontratua sinatu beharko du jabeak Udalarekin, eta hori sinatu eta aurrerakina ordainduko zaio.

Epe horretan jabeari lepora dakioken arrazoiren batengatik ez baldin bada kontratua sinatzen, automatikoki ulertuko da aurrerakinari uko egiten diola.

Udalarekin kreditu-lagapeneko kontratua sinatzeak berarekin darama jabearen konpromisoa aurrerakina itzultzeko.

IV. ERANSKINA: Etxebizitzak eraberritzen badira, obrak egiteko ordaindutako tasa eta zergaren zati baten pareko diru-laguntza bonoetan

1- Diru-laguntza hau eskuratu ahal izango du Bizigune, Asap edo udal programan etxebizitza sartzeko duen etxebizitzaren jabeak, baldin eta programa horietan sartzeko aurreikusitako obrak egiten baditu eta, udal programari dagokionean, gutxienez urte bateko alokairu-kontratua – maizterrak nahi badu hiru urtera arte luzatu daitekeena– sinatzen badu.

2- Diru-laguntza herriko komertzioetan erosteko bonoetan emango da. Jabeak bat baino gehiago balira, bonoak zein pertsona fisikori eman adierazi beharko dute eskaera egitean (pertsona fisiko bakarra), eta ez badute adierazten, eskaeran lehenengo azaltzen den pertsona fisikoari emango zaizkio bonoak.

3- Laguntza hori izango da obra horiek egiteko obra-baimenagatik ordaindutakoaren % 50aren parekoa eta gehienez ere 450 eurokoa. Ateratzen den kopurua bosten multiplora biribilduko da eta hiru urteetan banatuta ordainduko da, betiere guztira 450 euroko kopurua gainditu gabe eta ordenantza honetan jasotako baldintza guztiak betez gero.

Ateratako kopurua hiruz zatigarria ez bada, bonoen zatirik handiena hirugarren urtean emango da.

4- Horretarako prozedura honakoa izango da:

- Etxebizitzaren jabeak Bizigune, Asap edo udal programan etxebizitza sartzeko interesa azaltzen dio dagokion entitateari.

- Entitate horretako teknikariek etxebizitza ikuskatu eta informe perizial bat emango dute. Bertan gutxienez honako puntuak garatu beharko dira:

- Obrak egin behar dituzten edo ez, eta egin beharra badago zeintzuk.

- Kobratu ahal izango duen gehieneko errenta.

- Etxebizitzaren jabeak ondoren obra horiek egiteko aurrekontuak eskuratuta, obra-baimena eskatuko du eta zerga eta tasa autolikidatuko du.

- Udalak obra-baimenean zehaztutako epean burutu beharko ditu obrak.

- Obrak amaitutakoan diru-laguntza eskaera aurkeztu beharko du Bergarako Udalean obren fakturen kopiekin eta alokairu-kontratuaren kopiarekin batera. Suradesak egin beharreko ikuskapenak egin ondoren, txosten teknikoak egingo du. Txosten horretan oinarrituta, dagokion diru-laguntza ordaintzeko proposamena egingo du Lurralde Antolamendu eta Ingurumeneko batzordeak, gero alkateak edo hark delegatutako organoak erabaki dezan.

5.- Onartutako diru-laguntza bonoetan eta 3 urtetan banatuta emango zaio, behin justifikatuta alokatuta izan duela. Horretarako urtarilaren 1etik otsailaren bukaerara bitartean egin beharko du eskaera. Epe horren barruan aurkeztu ezean urte horri dagokion diru-laguntza galduko du.

Konprobaketak egin ondoren, dagozkion bonoak emango zaizkio.

6.- Txosten perizialean jasotako obrez gain beste obra batzuk egin baditu, azken hauek ez dute laguntzarik izango.